



XLI. IBILALDI NEURTUA 2006-05-13/14

Alpino 60 urte 1946-2006

Arautegia

Artibai Mendigoizale Taldeak, **iraupen luzeko ibilaldi** honen antolaketarekin, helburu bi lortu nahi ditu: Batetik, kultura eta kirolzaletasuna uztartzea, alegia, mendi zaletasuna eragiteaz batera gure herriko mendi, bazter eta zidorrak ezagutaraztea; eta, bestetik, geure 60. urteurrena ospatzea.

Aurtengo Ibilaldi Neurtua, XLI. dugu, okasioak eraginda, edizio berezia izango delarik, ibilbide birekin:

A) **65 kilometrokoa:** Arabako **Markinatik**, Baias ibai ondotik, Albizkorta, **Gorbeia** (kontrola), Aldaminaspe, Atxuriko pasabidea, **Saldropo** (kontrola eta jan-edana), Barazar mendatea Dima gaina, Urkiola mendatea, Atxarte, **Abadiño** (kontrola eta jan-adana) Matiena, Garai, Undakorta, **Oiz** (kontrola) **Longa** auzoa (kontrola eta jan-edana) Arta auzoa, Iruzubieta, Erdotza, **Markina-Xemein**.

B) **20 kilometrokoa:** **Garaitik**, Undakorta atsedenekua, **Oiz** (kontrola) **Longa** auzoa (kontrola eta jan-edana) Arta auzoa, Iruzubieta, Erdotza, **Markina-Xemein**.

Ibilaldi luzearen batz besteko iraupena **16 ordukoa** izango da. Laburrarena berriz, **5 ordukoa**,

Gauetz, ibilbidea disdiragailuz eta argi-fokukin markatuta egongo da, eta egunez zinta zuri-gorritz.

Antolatzaileek autobus zerbitzua ipiniko dute, partaideak abiapuntura eramateko. **Ibilaldi luzeari** Markina-Xemeingo Arkupetik (herriko autobus geltokitik) emango zaio **irteera, larunbatean (Maiatzak 13), gaueko 22:00etan**. Ibilaldi **laburrari**, berriz, **igandean, goizeko 7:00etan**, bertan Arkupean.

Ibilaldiotan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da eta dohainik izango da.

Izena emateko moduak:

- Tel. 636.58.60.37 edo 627.73.16.73
- Gure lokalean, ostegunetan 20:00etatik 21:00etara
- Alboko orria bete eta taldeko buzoira bota edo postaz bidali helbide honetara:
ARTIBAI MENDIGOIZALE TALDEA
Abesua Kalea, 10 - 48270. MARKINA-XEMEIN
- Email bat bidali alboko datu guztiekin, web guneko **Azken berriak** orriaren esteka berezia erabiliz.
(web guneko helbidea: www.alpinoartibai.org.es edo idatzi Artibai Mendigoizale Taldea Google-n)

INSKRIPZIOAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA: MAIATZAK 9, ASTEARTEA.

Autobusen antolaketa dela eta, irteera egunean bertan ezingo da inskripziorik egin.

Oroigarri berezi bat egongo da partaide guztientzat eta diploma bat jasoko dute postaz.

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko ibilaldian zehar edo bere ondorioz gerta litezkeen istripuen erantzukizuna, eta partaideek ez dute inolako kalte-ordain eskubiderik izango. Antolatzaileek hemen azaldutako guztia aldatzeko eskubidea izango dute, eta era berean, Ibilaldia ez egitekoa, arazoren bat sortuz gero.

Izena emateak arautegi honetako puntu guztiak onartzea dakar.

OHARRAK:

Ibilaldi luzera linterna eta ordezeko pilak eramatea komeni da
Ibilaldi luzean parte hartzeko, 18 urtetik gorakoa izan behar da eta Federatua egotea komeni da
Amaieran dutxa-zerbitzua egongo da nahi dutenentzat

Zerbait gehiago jakin nahi baduzue, goiko telefonoetara deitu edo gure web gunera jo.



XLI. IBILALDI NEURTUAK 2006

LUZEA: MARKINA (Araba) -
MARKINA-XEMEIN (Bizkaia)

LABURRA: GARAI -
MARKINA-XEMEIN

IZENA EMATEKO ORRIA

(Eskuz betetzen baduzu **MAIUSKULAK** erabili mesedez)

1. DEITURA _____

2. DEITURA _____

IZENA _____

IBILALDI LUZEA LABURRA

HELBIDEA (diploma jasotzeko):

P.K. _____ HERRIA _____

TELEFONOA _____

E-POST@ _____

MENDI-TALDEA _____

Orri bat bete parte hartzaile bakoitzeko.

Alpino 60 urte 1946-2006